

Ikasleak pozik daude 1. modulua eginda, Euskal Kulturgintzaren Transmisioan

2009/03/17

"Izena eman nuenean (EKT ikastaroan), neure buruari egindako opari moduan egin nuen, eta asteazkenero disfrutatu izan dut opari hori". Horrela laburbildu zuen ikasle batek orain arteko esperientzia Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) graduondoan. Izan ere, otsailaren 11n amaitu zenean ikastaroko lehen modulua, galdetu egin zitzaizen ikasle guztiei, jakiteko euren iritziz gauzak zelan egiten ari diren. Ikasleek denetariko **adjektiboak** erabili dituzte ikastaroa izendatzeko: erakargarria, koloretsua, aberasgarria, interesgarria, atsegina, mamitsua...



Iritzi baikorra berdin hedatzen da orain arte izandako irakasleengana: "A zer nolako irakasle koadrilla izan dugun lehen moduluan. Zorionak eta eskerrik asko guztioi!". Hori bai, batzuk gustukoago izan dituzte, beste batzuk baino, normala den legez. Eta zer esan ikaskideei buruz? "Oso jende animosoa da, eta esperientziak eta iritziak partekatzeko prest", erantzun zuen ikasle batek bere ikaskideen gainean. Beste batek zioen "giro lasaia" dagola taldean, eta "jendeak parte hartzeko grina duela".

Parte hartzea

Ikasleak pozik agertu dira taldean dagoen parte hartzearekin: "**Nik uste parte hartzea sustatzen dela, nahiz maiz denboraz motz xamar ibili**", zioen batek. Hala ere, badute iradokizunik prozedurak hobetze aldera: "Hizlari bakoitzaren ostean gure arteko gogoeta txiki batzuk egongo balira, probetxu handiagoa aterako genieke hizlariak esandakoei". Beste batek, ostera, proposatu du **herri handiak eta hiriak ere kontuan hartzea** esperientziak azaltzeko orduan.

Laburbilduz, jendea pozik ari da EKT ikastaroan, baina Eskoriatzara inor ez da etorri firin-faran egitera. Ikasle guztiak lanean ari dira beste nonbait, eta zenbaitetan gogorra ere egiten zaie ikastaroaren inguruan egin behar duten lana. Hala ere, ezin pozikago dihardute.